

de ésta, estudioso de una parte reducida del Medievo, para juzgar una temática tan amplia como la contenida en el volumen dedicado a Agurain-Salvatierra pueden explicar decisiones como la tomada por aquellas revistas.

José Ángel García de Cortázar



AULESTIA, Gorka
Escritores euskéricos contemporáneos

Bilbo: Euskaltzaindia, 2011
424 or. ; 24 cm.
(*Euskaltzainak* bilduma 14. zenbakia)
ISBN: 978-84-95438-60-0

lazko urtean Euskaltzaindiak aurkeztu zuen Bilboko Liburuaren Azokan *Euskaltzainak* bildumako 14. alea, Gorka Aulestia ondarrutarrak prestatutako *Escritores euskéricos contemporáneos* izenekoa hain zuzen ere. Gorka Aulestia (Ondarroa, 1932-) EHuko irakaslea da gaur egun. Era berean, bere bizitza luzean Kongoko Errepublika Demokratikoan, Estatu Batuetan eta Deustuko Unibertsitatean ere jardun du irakasle; artikulua eta liburu ugari egilea eta ohorezko euskaltzaina da. Gorka Aulestiaren *Escritores euskéricos contemporáneos* berau gai berdintsuko bigarren liburua dugu. Izan ere, egile berak 2009. urtean Euskaltzaindiaren bilduma horretan, 8 zenbakiarekin alegia, argitaratu zuen lehenengo lan bat, aurrekarizat jo dezakeguna, *Estigmatizados por la guerra* izenburupean. Liburu horretan bi gai nagusi jorrazten zituen Ondarroakoak: batetik, Franco garaiko euskal erbestealdia, eta bestetik, liburuan agertzen diren berrogeita hiru idazleren biografia eta produkzioa. Liburuak harrera ona izan omen zuen irakurleen artean eta horrexek eman zion bihotza egileari bigarren lana argitaratzeko. Bigarren honetan, berriz, nagusiki XX. mendeko beste hogeita hiru idazleren iruzkinak eskaini dizkigu, baina erbestearen gaia alde batera utzita.

Egilearen esanetan *Escritores euskéricos contemporáneos* lanak ez du euskal literaturaren historia osoa zedarritu nahi, ezta bere XX. mendeko historia egin nahi ere, aurreko mendeko horretako euskaraz idatzitako literaturaren ikuspegi benetan zabala ematea lortzen badu ere. Esan dezakegu, beraz, *Escritores euskéricos contemporáneos* lana sasoi horretako euskal idazle batzuen ekarria nabarmentzera datorrela. Horrela, liburu honetako artikulua luzeenetatik falta dira aurreko lanetan agertutako idazleak, erbestearen gaiari lotua zegoen "Lau-xeta" kasu. Baita ere, aitortzen digun moduan, egileari gustatuko zitzaiokeen artikulua gehiago, edo behintzat luzeagoak, eskaintzea garrantzitsutzat jotzen dituen hainbat idazleri; hala nola, J. Hiriart-Urruti, J. Azurmendi, A. Lertxundi, J. M. Irigoien, J.A. Arrieta, K. Izagirre, J. Sarrionandia, L. M^a Mujika, P. Iztueta, X. Amuriza, M. Atxaga, A. Urretabizkaia, P. Urkizu, J. M^a Torrealdai, L. Baraiazarra eta abarri. Bada, era berean, egileak liburu honen bitartez beste helburu bat gehiago bete nahi izan du, euskal literaturarekiko aurreritziari kontra egitea alegia, euskaldunok geure literatura ere badugula, geure hizkuntzan idatzia, erakustea.

Horretan egileak ez du aukerarik galtzen gure hizkuntza edota gure literatura deitoratu izan dutenei aurre egiteko, maisutasunez egin ere. *Escritores euskéricos contemporáneos* liburukak zazpi atal nagusi dauzka: *En los albores del siglo XX*; *República española y renacimiento cultural vasco*; *Poesía rupturista y existencialista*; *Poesía religiosa y comprometida*; *Novela contemporánea*; *Unificación del euskera eta literatura oral*. Zazpi atal nagusi horiei jarraitzen diete beste atal bik, erreseina osagarriez hornituak biak ala biak, ez horregatik, gure irudiko, garrantzia gutxiagokoak. Artikuluok, hurrenez hurren, gaztelaniaz eta ingelesez idatzirik daude.

Gorka Aulestiak literatura genero gehienak jorratu ditu liburu honetan; hau da, olerkigintza, antzerkia, narratiba, gutuna, kazetaritza eta bertsojaritza. Ikuspegi zabala eskaini du, idazle eta lan ezagunak nahiz hain ezagunak ez direnak ere iruzkindu ditu. Horren adibidea dugu genero epistolarra lantzen duten lanak aipatu dituenean, gurean oso genero ezaguna ez izateagatik. Bestaldetik, *Escritores euskéricos contemporáneos* lanak ez du inolako kononik ezarri idazleen hautapenaren bidez, ez da hori egilearen asmoa; izan ere, esan bezala, idazle eta lan nagusien ondoan publiko zabalera nekez ailegatzen diren bestelako lanek ere badute euren tokia. Atalei bagagozkie, atal bakoitzean ageri diren idazleen biografia zabala egiteaz gain, egileak zenbait lanen iruzkin luzeak gehitu ditu. Hori dela eta, esan genezake liburu honek balio bikoitza duela, batetik idazleen bizitza eta bibliografia luze-zabal eskaintzen digu, bestetik lanen gaineko ikuspegi kritikoa ere ematen digu. Horrela izanik, artikulua bakoitzean egileak bi idaztanka uztartu ditu, bata deskriptiboa, idazlearen biografia eta bibliografia zertzeladei dagokiena, eta bestea, kritikoa, lanen gaineko iruzkinei dagokiena. Esan, iruzkin horiek zuzendu dituela idazleen lanak biltzen edo jorratzen dituzten argitalpen berrietara; hau da, jatorrizko lanez ari diren gaur egungo argitalpenetara. Uztardura horretatik sortu dira *Escritores euskéricos contemporáneos* liburuan irakuleak aurkituko dituen Gorka Aulestiaren artikulua aberats hauek. Beste alde batetik, ezin ahantz *Escritores euskéricos contemporáneos* delako hau hogeita hamar urteetako lanaren emaitza dela. Aurreko lanean bezala, liburu honetako artikuluek sorburu dute *Society of Basque Studies in America*, *Muga*, *Sancho el Sabio*, *Lapurdum*, *Iker* eta *RIEV* aldizkarietan urte luzeetan egindako argitalpenetan, horietan eta, baita ere, Estatu Batuetako zein Euskadiko unibertsitatetan egindako urteetako langintzan. Hala ere, esan daiteke artikulurik gehienak 90eko hamarkadan *Sancho el Sabio* aldizkarian argitaratu zirela. Berez, oinarrian artikulua solteak baditugu ere, lan honek artikulua solte horiei guztiei batasuna ataletan bilduz eta atal bakoitzari sarrera eginez eman die. Egilearen artikuluetan bada nabarmendu beharreko gauza bat, irakurleari ohar-kabea pasatuko ez zaiona; hots, artikuluek didaktismo handiz idatzita daude. Horretan nabari-nabaria da luzaroan irakaslea izanaren eragina. Izan ere, artikuluek irakurrita konturatzeko gara Aulestiak euskal literaturaren gaineko argibide ugari eskaini diola irakurleari, idazleez eta liburuaz. Bestaldetik, artikulua gehienak gaztelaniaz eta beste batzuk ingelesez idatzita egoteak euskarazko literaturaren berri zuzena izaterik ez daukatengana iristea ahalbidetu du.

Atalei berriro erreparatuta, Aulestiak zazpi atal nagusi horietan banatu du XX. mendeko euskal literatura. Horrexek ezarri du liburuaren ardatza. Zehaztasun handiagoz egin baliteke ere, egia esateko, atalok beren baitan mende osoa hartzen dute. Horrela bada, lehenengo atala, *En los albores del s. XX* deritzona, mende hasierako idazle eta lanei eskaini die. Bertan Resurrección M^o de Azkue; Domingo Agirre; Jose Manuel de Etxeita; Felipe Arrese Beitia eta Evaristo Bustinza, “Kirikiño” idazleak ditugu. Azkueren lan literarioa eta batez ere filologikoa, eleberraren sorrera, eleberrirakurazalearen ezaugarriak, XIX. mendearen amaieran Lore Jokoetan sortutako olerkigintzaren iraupena, kronika, euskal kazetaritza eta narratiba laburraren hastapena jorratu ditu lehenengo atal horretan. Bigarrenak, berriz, errepublika garaiko “Euskal Pizkundea” izan zenera garamatza, *República española y Renacimiento cultural vasco* deitutako atalaren eskutik. Bertan Jean Etchepare; Jules Moulier, “Oxobi”; Jose M^o Agirre, “Xabier de Lizardi”; Nicolas Ormaetxea, “Orix” eta Agustin Anabitarteren lanei errepaso egin die. Etchepareren eta Anabitarteren prosazko lanen ondoan, atal horretan nagusi dira olerkariak. Hirugarren atalean, *Poesía rupturista y existencialista* deri-

tzonean, gerra ondoko sasoietan hasita euskal literatura goitik behera aldatzeari ekin zioten olerkarien lana jaso du egileak. Bertan, Jon Mirande; Gabriel Aresti; Juan San Martín, “Otsalar”; Xabier Lete; Mikel Lasa eta Joxe Anton Artze aurkituko ditu irakurleak. Aurrekoan genioen moduan, Aulestiak ikuspegi zabala ematen lortu du lan honen bidez, ez du gairik albo batera utzi. Horrela, laugarren atalean kalitatez eta are sentiberatasun handiagoz jorratu ditu euren olerkietan euskara, gizakiaren arazoak eta Jaungoikoaren ideia uztertzten jakin izan zuten idazleak. Atalak, *Poesía religiosa y comprometida* izenburupean, Jean Diharce, “Iratzeder”; Juan Mari Lekuona eta Bitoriano Gandiagaren lanak dakartzkigu. Bosgarren atalak, berriz, *Novela contemporánea* deritzonak, 70, 80 eta 90eko eleberrigintza modernora garamatza, aurreko literatura moldearekin erabat apurtzen duena. Bertan bi izen baino ez zaizkigu azaltzen, Bernardo Atxaga eta Ramón Saizarbitoria alegia. Nolanahi ere, egile horien lanei buruz eskaintzen zaizkigun artikululu luzeak zinez interesgarriak dira. Seigarren eta zazpigarren atalak, *Unificación del euskera* eta *Literatura Oral* hurrenez hurren, liburuko laburrenak ditugu. Bertan, Mikel Zarate eta Antonio Zavalaren lanen eskutik euskara batuaren sarrera literaturan eta ahozko herri literaturan murgilarazten gaitu Ondarroakoak.

Erreseina laburragoei eskainitako tartean, genioen lez, Gorka Aulestiak bi atal gehigarri hornitu du liburua. Batean gaztelaniaz egindako erreseina osagarriak aurkitzen ditugu eta bestean ingelesezkoak. Batean zein bestean, era guztietako lan eta egileei eskaini dizkie erreseinok. Gaztelaniazkoetan esaterako, Jean Hiriart-Urruti; Andima Ibiñagabeitia; P. Iztueta; Elixabete Perez Gaztelu; Patri Urkizu; Joan Mari Torrealdai; Mikel Atxaga; Luis Baraiazarra; Joxe Azurmendi; Joseba Sarrionandia; Andoni Egaña-Jon Sarasua; Joxe Mari Aranalde; Julen Urkiza; Jesus Maria Lasagabaster eta J.B Orpustanen lanen gaineko iruzkinak aurkitzen ditugu. Era berean, ingelesezkoak “Lauaxeta”; Telesforo Monzon; P. Larzabal; “Txillardegí”; Xabier Amuriza; Arantxa Urretabizkaia; Joxe Agustin Arrieta; Joseba Sarrionandia; Joanito Dorronsoro; Iñaki Eizmendi; Balendin Enbeita eta Karmelo Etxenagusari eskaini dizkie.

Horregatik guztiagatik, Gorka Aulestiaren *Escritores euskéricos contemporáneos* aintzat hartu beharreko lana dugu. Lan honek XX. mendeko euskarazko literaturan barrena bidaia gonbita egiten digu, datu hutsak ematen dituzten lanetatik harago, *Escritores euskéricos contemporáneos* berau kritikaren ikuspegitik eginda baitago. Halaber, lan hau aspaldi honetan gaia luze-zabal jorratu izan duten Jon Kortazar, Iñaki Aldekoa, Mari Jose Olaziregi edota Patri Urkizu bezalako egjleen lanak osatzera dator.

Alvaro Rabelli